



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Zuzenbideak genero estereotipoak
kontuan hartzen: Euskal
Autonomia Erkidegoko kasuari
erreferentzia bat**

Alazne Irigoien Domínguez

27-32 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.03>

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



Zuzenbideak genero estereotipoak kontuan hartzen: Euskal Autonomia Erkidegoko kasuari erreferentzia bat

Irigoien Domínguez, A.

Zuzenbide Fakultatea,

Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia Saila.

alazne.irigoyen@ehu.eus

Laburpena

Aspalditik da ezaguna genero-estereotipoek eragina dutela gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean, baita Zuzenbidearen arloan ere, CEDAW-k (Emakumeen Aurkako Diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Hitzarmenak) aitortu zuenetik. Lan honen helburu nagusia da, CEDAW-tik sortu zen genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoa EAE-ko araudi eta jurisprudentzian nola garatu den aztertzea. Ikuspegi intersektionala erabiltuta, genero estereotipoen tratamendu juridikoaren azterketak erakutsi du EAE-ko berdintasun araudiek betebeharrak juridikoa garatu dutela estereotipo horiek deuseztatze aldera, baina auzitegietan bide luzea dago oraindik genero estereotipoak identifikatzeko.

Hitz gakoak: genero estereotipoak, emakume eta gizonen berdintasuna, berdintasun araudia, CEDAW, EAE

Abstract

The negative effects of gender stereotypes on gender equality have been long acknowledged, also in the field of Law with the adoption of CEDAW (Convention on the Elimination of all forms of Discrimination Against Women). The main objective of this work is to analyze how the legal obligation to eliminate gender stereotypes derived from CEDAW has been developed in the legislation and jurisprudence of the Basque Country. Using intersectional lens, the analysis of the legal treatment of gender stereotypes has shown that the Basque gender legislation develops the obligation to eliminate gender stereotypes, but there is still a long way to go for courts to identify gender stereotypes.

Keywords: gender stereotypes, gender equality, gender legislation, CEDAW, Basque Country

1. Sarrera eta motibazioa

Zalantzarik gabe, azken hamarkadetan onartutako berdintasun legeak eta garatutako politika publikoek lagundu dute genero berdintasunaren¹ egoera hobetzen². Hala ere, genero desberdintasunek iraun badiraute, gizarteko arlo gehienetan, ekonomian, politikan, gizarte arloan eta abarretan. Genero berdintasuna sustatzea lan neketsua da maiz, legeak aldatzeaz gain, eredu soziokulturalak eta gure iruditeria kolektiboan oso errotutako ideiak aldatzea eskatzen baitu. Estereotipoak iruditeria kolektibo horren parte dira.

Aspalditik, eta bereziki 60-70 hamarkadetako mugimendu feministen ostean, onartu egiten da genero estereotipoek eragin negatiboa dutela emakume eta gizonen berdintasunean, eta emakumeek bizi duten bereizkerian. Zuzenbidearen alorrean ere estereotipoen eragin negatibo hori aitortu da, 1979ko *Emakumeen Aurkako Diskriminazio mota guztiak Ezabatzeko Hitzarmenean* (CEDAW sigla ingelesekin ezaguna) bereziki. Izan ere, CEDAW-k ezarri zuen genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoa zutela botere publikoek (Cook eta Cusack, 2010)³.

¹ Lan honetan genero berdintasuna eta emakume eta gizonen berdintasuna sinonimo gisa erabiltzen dira.

² Nahiz eta batzuetan lege eta politika publiko ezberdinek aurreikusi ez diren desberdintasunak sustatu ditzaketen. Adibidez, 4/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 11koak, Atzerritarren eskubide eta askatasunei buruzkoa eta haien gizartratzea Espainian, "Atzerritarren Legea" izenez ezaguna, areagotu ditu Espainiako emakume herritarren eta emakume atzerritarren arteko desberdintasunak.

³ Cook eta Cusack (2010) lehenak izan ziren CEDAW-tik genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoa eratortzen dela azaltzen zientzia juridikoaren arloan. Lan honen 3. Zatian gehiago landuko den gaia da hau.

Baina, nahiz eta genero estereotipoen eragin kaltegarriak aspaldian jakin, Zuzenbidean ez dira gehiegi aztertu orain dela gutxi arte. Izan ere, zientzia juridikoan eta batez ere legegintzan ahalegin handia egin da emakumeak zuzenean diskriminatzen zituzten arauak aldatzeko eta oinarritzko hainbat eskubide bermatzeko. Zentzu horretan, onartzen da, oro har, berdintasun formala lortu dela⁴. Hala ere, berdintasun juridikoak ez du lortu desberdintasun sozialak gainditzeko eta horregatik, desberdintasuna sustatzen duten elementu sotilagoi erreparatzen hasi da Zuzenbidea. Genero estereotipoak emakume eta gizonei buruz barneratuta ditugun ideiak diren heinean, desberdintasun eta bereizkerian eragiten duten elementu sotilak dira.

Azken urteotan garatutako emakume eta gizonen berdintasun lege eta politika publiko modernoetan genero rol eta estereotipoak gainditzeko erreferentziak ugaritu dira legegintzan maila guztietan, -nazioartean, Europan, estatu, eskualde eta probintzietan-. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) berdintasun lege nagusia garrantzitsua izan zen eta geroztik hainbat aldaketa eta arau berri onartu egin dira emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan⁵. Baina, zein zentzutan garatu da genero estereotipoak deuseztatzeko dagoen betebeharr juridikoa EAE-ko Zuzenbidean? Lan honek oraindik aztertu ez den galdera horri erantzuten saiatzen da, garrantzitsua baita Zuzenbideak genero estereotipoei erreparatzea gure gizartean dagoen emakume eta gizonen desberdintasuna gainditzeko gako bat izan daitekeelako. Gainera, emakume talde ezberdinen gain ezartzen diren estereotipo guztiak kontsideratzeko funtsezkoa da ikuspegi intersektionala kontuan hartzea, hau da, generoarekin gurutzatzen diren beste sistema-botereak kontuan hartzea (arrazia, adina, gaitasuna, erlijioa, sexu orientazioa, eta abar) (Crenshaw, 1989; Barrère, 2010).

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Genero-estereotipoei buruzko eztabaida bereziki sustatu da azken urteotan, bai Zuzenbidean, bai politika publikoetan. Europa mailan nabarmentasun handia izan dute estereotipoek berriki. Adibidez, *Europar Kontseiluko 2018-2023 Genero Berdintasun Estrategiaren* lehenengo helburua da “genero estereotipo eta sexismoaren aurkako borroka eta prebentzioa”⁶ eta *Europar Batasuneko 2020-2025 Genero Berdintasun Estrategiaren* lehenengo ekintza-eremua “indarkeria eta genero estereotipoei aurre egitea”⁷ da. Doktrina jurisprudentzialaren alorrean ere Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak genero berdintasunean izan duen garrantzia aipatzekoa da. Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia interesgarri ugari ere aurkitu ditugu⁸. Adibidez, Konstituzio Auzitegiak genero estereotipo eta 9.2. artikularen⁹ arteko harremana nabarmendu du.

⁴ Mendebaldeko herrialdeak kontuan hartzen baditugu. Berdintasun formala, normalean emakume eta gizonak legearen aurrean berdinak izateak esan nahi du.

⁵ Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasun legea 2005.urtean onartu zen (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa). Espainia mailan, 2004.urtean genero indarkeriaren aurkako legea onartu zen (Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriak Buruzkoa), baina genero berdintasun legea ez zen 2007. urtera arte onartu (Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuna eragingarriko).

⁶ Europar Kontseiluko 2018-2023 Genero Berdintasun Estrategia. Hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.coe.int/en/web/genderequality/gender-equality-strategy>

⁷ Europa Batasuneko 2020-2025 Genero Berdintasun Estrategia. Hurrengo estekan eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52020DC0152>

⁸ Ikus adibidez 2016ko urriaren 25ko Auzitegi Gorenaren sententzia eta López Aniortek (2019) egindako analisia: López Aniorte, M.C. (2019): “Trabajadoras asalariadas y autónomas ante la protección por maternidad: la subsistencia de estereotipos sexistas en la ley y en la jurisprudencia” *Revista Derecho Social y Empresa* nº 10, 1-24.

⁹ Berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko artikulua, hain zuzen ere.

Alor akademikoan ere gero eta interes handiagoa piztu dute genero estereotipoek Zuzenbidean. Berezi, Cook eta Cusack-en 2010eko obraren argitalpenaren ondoren, “Gender stereotyping, Transnational legal perspectives”¹⁰, eta beste autore batzuen ekarpen garrantzitsuei esker. Franklin-en (2010, 2013) eta Timmer-en (2011, 2015, 2016)¹¹ lanak ere aipatu behar dira. Autore horiek, hurrenez hurren, aztertu dituzte Estatu Batuetako Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian estereotipoen inguruan egindako arrazoiketa juridikoak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak estereotipoen inguruko arreta. Espainian gai honen inguruko literatura juridikoa oraintsu garatzen ari da. Berriki, Lousada Arochenak (2020), Galiziako Auzitegi Goreneko epaile esanguratsuak, generoaren ikuspegitik egindako epaiketa aztertu du eta genero-estereotipoak identifikatzearen eta ezabatzearen garrantzia nabarmendu du. Beste autore espainol batzuk aztertzen ari dira genero-estereotipoak Zuzenbidean diziplinarteko jakintzetatik abiatuta (Gómez, 2018; Lorente, 2018; Ubieto, 2018)¹².

Nahiz eta ikerketa ugari aurkitzen ditugun, badira bestelako analisi gehiago egiteke paradigma feministaren ikuspegiaren aldetik; izan ere, oraindik ere badira zenbait aspektu aztertu gabekoak. Horietako batzuk lantzen ditu ikerketa honek eta hortik garatzen ditu helburuak, hain zuzen ere. Esaterako, estereotipo kontzeptu beraren tratamendu legislatibo era jurisprudentzialak aztertzen ditu nazioarteko maila ez den eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoan, preseski. Eta gainera, orain arte gaian gutxi landutako ikuspegi intersektionala erabiltzen du genero estereotipo mota guztiak kontuan hartzen dituen analisisia ahalbidetzeko.

3. Ikerketaren muina

3.1. Zuzenbidearen teoria feminista eta intersektionalitatea

Zuzenbidearen teoria feministak eta intersektionalitatearen teoria dira oinarri lan honen marko kontzeptuala osatzeko. Paradigma feministak Zuzenbidearen androzentrismoa salatzeaz gain, Zuzenbideak genero desberdintasuna eta bereizkeria mantentzen izan dezakeen papera aztertzen du. Nahiz eta Zuzenbidea diskurtso botere gisa ulertzen den (Foucault, 1966; Facio, 2000), autore batzuek argudiatu dute Zuzenbideak ere balio dezakeela desberdintasunaren aurka borrokatzeko (Williams, 1992; Facio, 2000). Crenshaw-k (1989) garatutako intersektionalitatearen kontzeptuan oinarrituta, genero estereotipo intersektionalak kontuan hartzen ditu ikerketak. Adibidez, emakume migratzaileei estereotipo zehatz batzuk ezartzen zaizkie, emakume eta migratzaile estatusa izateagatik (Cook eta Cusack 2010, 29).

3.2. Genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoa nazioarteko eta Europar mailan

Nazioarteko mailan, CEDAW-ko 5.a eta 2.f. artikuluek ezartzen dute genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoa. CEDAW-k dioenez, nazioarteko hitzarmenaren parte diren botere publikoek, botere legislatibo eta judizialak barne, genero estereotipoak eta gizonen eta emakumeen rol estereotipatuak deuseztatu behar dituzte hainbat neurri ezarritik¹³. Europa mailako berdintasun arauak aztertu eta gero, genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoa egokien garatzen duen hitzarmen juridikoa 2014an sartu zen indarrean “Istanbulko Hitzarmena”-n (*Europako Kontseiluaren Hitzarmena*,

¹⁰ Erreferentzia osoa Erreferentziak atalean agertzen da, lan honen bukaera aldean.

¹¹ Timmer-ek beste autore batzuekin egin dituen ekarpenak ere oso interesgarriak dira ere. Ikus adibidez, Brems, E. eta Timmer, A. (2016): *Stereotypes and Human Rights Law*. Intersentia.

¹² Adibidez, Zuzenbidetik eta Psikologiatik, Zuzenbide eta Zientzia Forense eta Kriminologiatik ... eta abarretik. Ikus adibidez, Martín, M. (2018): *Análisis de la justicia desde la perspectiva de género*, Tirant lo Blanch.

¹³ Espainiak CEDAW 1983ko abenduaren 16an berretsi zuen, baina Berrespen Testua ez zen Espainiako Boletín Ofizialean martxoaren 21a arte argitaratu («BOE» 69 zenb., 1984ko martxoaren 21ekoa).

emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzkoa, 2011) aurkitzen dugu 12.1 eta 14. Artikuluetan, hain zuzen ere.

3.3. Euskal Autonomia Erkidegoko proiektzio juridikoa

EAE-ko berdintasun araudi nagusiek genero estereotipoei hainbat erreferentzia egiten dizkiete. *Otsailaren 18ko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak*, 3. artikuluan EAE-ko botere publikoek berdintasun alorrean jarraitu behar dituzten printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta horietako bat “sexuaren arabera rola eta estereotipoak desagerraraztea” da¹⁴. Maila foralean, *martxoaren 9ko, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Araua* (Gipuzkoa) eta *ekainaren 20ko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua*-k (Bizkaia) aurkitzen ditugu¹⁵. Horiek genero estereotipoei eta interseksionalitate ikuspegia txertatzeko beharrari erreparatu diete¹⁶.

EAE-ko jurisprudentzia aztertzeko “genero estereotipo” hitz klabea erabili da jurisprudentzia bilatzaileetan¹⁷. Lortutako emaitzen artean emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko auziak bakarrik aztertu dira, eta horietan genero estereotipoen erreferentzien maiztasuna eta sakontasun aztertu dira. Jurisprudentziaren analisia baliagarria izan da jakiteko auzitegiek nola erreparatu dioten genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoari. EAE-ko auzitegi batzuek genero estereotipoak identifikatu eta horiek deuseztatzeko beharrari buruz aritu egin dira hainbat sententzia eredugarritan¹⁸, baina, oro har, gutxi izan dira aurkitutako erreferentziak.

4. Ondorioak

Lanak erakutsi du nola Zuzenbidea, gaur egun batez ere berdintasun araudien garapenaren bitartez, genero estereotipoak deuseztatzeko bide izan daitekeela. Zehatzago, lanak erakutsi du nola genero berdintasunaren inguruko lege eta politika publiko modernoek genero kezka gero eta handiagoa adierazten dutela estereotipoen eta interseksionalitate ikuspegiaren integrazioaren inguruan. Egungo feminismo korrante nagusien eragina nabarmena da legedi berri hauetan. EAE-ko berdintasun araudietan ere kezka horiek ikusten dira. Genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak juridikoa garatu da EAE-ko berdintasun araudian, eta beraz, esan dezakegu gaur egun betebeharrak juridiko hori ez dela bakarrik nazioarteko eta europar mailako Zuzenbidetik garatzen, baizik eta eskualdeko Zuzenbidetik ere bai.

Baina nahiz eta araudietan genero estereotipoak deuseztatzeko beharra aipatzen den, EAE-ko auzitegien sententzien eta jurisprudentziaren analisiak erakutsi du oraindik bide luzea egin behar dela epaileek genero estereotipoak identifikatzeko eta horiek deuseztatzeko beharraz aritzeko. Izan ere, gutxitan aurkitu dira emakume eta gizonen berdintasun kasu juridikoak genero estereotipoei erreferentzia egiten dutenak, eta are

¹⁴ 4/2005 Legeko Zioen Adierazpenean jada emakume eta gizonen erlazio eta gizarteko posizio hierarkizatuak estereotipo eta roletan jatorria dutela onartzen da eta gero, zati xedatzailean genero deuseztatzeko betebeharrak 16, 26, 28, 29 eta 30 artikuluetan garatzen da (lan eta estatistiketan, komunikabideetan eta publizitatean eta hezkuntzan, hurrenez hurren).

¹⁵ Arabako lurralde historikoak oraindik ez du onartu emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko Foru Araua, baina jendaurrean jakinarazi du prestatzeko asmoa. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV Foru Planak (2016-2020) aurreikusten du hurrengo plangintza garaian berdintasunerako Foru Araua lantzeko aurretiazko lana egitea.

¹⁶ 4/2005 Legeak estereotipoei buruz esaten duenaz gain, berdintasun arau foralek, lurralde historikoen eskumen espezifikoak kontuan hartuta, giza zerbitzu eta kirol eremuetan ere genero estereotipoak deuseztatzeko betebeharrak garatzen dute (adib. 4/2018 Arau Foraleko 52.b artikuluan eta 2/2015 Arau Foraleko 48. artikuluan). 2/2018 Arau Foralak, arau modernoek, bereziki interseksionalitatearen beharra azpimarratzen du.

¹⁷ CENDOJ Dokumentazio Juridikorako Zentro-ko bilatzailea erabili da. Hurrengo estekan aurki daiteke: <http://www.poderjudicial.es/search/indexAN.jsp>

¹⁸ Adibidez, Bizkaiko Auzitegi Probintzialeko hainbat sententzia: SAP BI 1721/2019, 2019ko martxoaren 27koa, SAP BI 1721/2018, 2018ko uztailaren 11koa, eta SAP BI 1510/2018, 2018ko ekainaren 8koa.

gutxiagotan, interseksionalitatearen ikuspuntutik egindako erreferentzia dutenak. Azken urteotako jurisprudentzian genero estereotipo kontzeptuaren erabilera gehiago aurkitu delako, badirudi jokaera positiboa dagoela eta hori aipatzekoa ere bada.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lan honetatik abiatuta, argi dago auzitegien erronkak direla eginkizun hauek: genero estereotipoen inguruko arreta garatzea eta horren inguruko hainbat baliabide zein tresna aztertzea, eta begirada interseksionala lantzea. Horregatik, ikerketak sakonago aztertuko du zein eragin izan dezakeen genero berdintasun kasuetan genero estereotipoak ikuspegi interseksionaletik deuseztatzea. Horrek modu erabakigarrian lagundu bailezake talde desberdinetako emakumeen eskubideak modu eraginkorragoan babesten, bereizkeria anitzari aurre egiten eta oro har, emakume eta gizonen berdintasuna aurreratzen.

6. Erreferentziak

- Barrère Unzueta, M.A. (2010): "La interseccionalidad como desafío al mainstreaming de género en las políticas públicas" *RVAP*, 87-88, 225-252.
- Cook, R.J. & Cusack, S. (2010): *Gender Stereotyping: Transnational Legal Perspectives*. University of Pennsylvania Press.
- Crenshaw, K. (1989): "Demarginalizing the intersection of race and sex: a black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics" *University of Chicago Legal Forum* 1 (8), 139-167.
- Facio, A. (2000): "Hacia otra teoría crítica del Derecho" Herrera, G. (arg.) *Las fisuras del patriarcado, reflexiones sobre Feminismo y Derecho*, Flacso Ecuador, 201-233.
- Foucault, M. (1966): *Les Mots et les choses: Une archéologie des sciences humaines*. Paris : Éditions Gallimard.
- Franklin, C. (2010): "The anti-stereotyping principle in constitutional sex discrimination law" *New York University Law Review*, 85-83, 83-171.
- Franklin, C. (2013). "Justice Ginsburg's advocacy and the future of equal protection" *The Yale Law Journal Online*, 122, 227-227.
- Gómez, R. (2018) "Los estereotipos de género en la toma de resoluciones judiciales" en *Análisis de la Justicia desde la perspectiva de género*. Tirant Lo Blanch, Alternativa, 161-174.
- Lorente, M. (2018). "Justicia, género y estereotipos" en *Análisis de la justicia desde la perspectiva de género*. Tirant lo Blanch, Alternativa, 139-159.
- Lousada Arochena, J. F. (2020). *El enjuiciamiento de género*. Dykinson, Madril.
- Timmer, A. (2011). "Toward an anti-stereotyping approach for the European Court of Human Rights" *Human Rights Law Review*, 11 (4), 707-738.
- Timmer, A. (2015). "Judging stereotypes: what the European Court of Human Rights can borrow from American and Canadian law" *American Journal of Comparative Law*, 63, 239-284.
- Timmer, A. (2016). "Gender stereotyping in the case law of the EU Court of Justice" *European equality Law Review*, 1, 37-46.
- Ubieto, A. (2018): "La violencia sexual como violencia de género: una perspectiva desde el derecho internacional de los derechos humanos", *Femeris* 3, (2): 165-170.
- Williams, P.J. (1992): *The Alchemy of Race and Rights*. Harvard University Press

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman nahi dizkiot Maggy Barrère Unzuetari, Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna eta nire doktore tesiko zuzendaria, bere gida profesional eta pertsonalagatik eta ikerketa gauzatzeko eman didan laguntza handiagatik. Eusko

Jaurlearitzari ere eskerrak eman nahi nizkioke, nire ikerketa proiektua Doktoretza-aurreko programaren bitartez finantzatzeagatik. Ikerketa hau gauzatzeko ideia eta grina, nolabait Ginebran (Suitza) Nazio Batuetan, zehazki CEDAW-ko Komitean, egindako egonaldi eta lanagatik sortu zen eta bizi-esperientzia hori aipatzeari garrantzizkoa deritzot. Lan hau Herri Arduralaritzako Euskal Aldizkarian (RVAP) publikatuko den artikuluaaren zati bat moldatuz egin da eta nire doktore tesiaren parte ere izango da.